


# DNA kopiatzean gertatzen diren zorizko akatsak dira minbizi-iturri nagusia

Orain arte uste izan da minbiziak bi eragile nagusi zituela: norberak ekar lezakeen herentzia eta ingurumena. Baina, 32 minbizi-motaren datu epidemiologikoak eta genomaren sekuentzia aztertuta, ikusi dute minbizien ia bi herenetan zelula osasuntsuetan DNA erreplikatzeko gertatzen diren zorizko akatsak direla azaltzen diren mutazioak. Irudian ikus daiteke minbizi-mota bakoitzean hiru faktoreetatik zein nabarmentzen den.

Minbiziaren ikuspegi berri horrek minbiziari aurre egiteko estrategia aldatzea eskatuko du. Orain arte prebentzioan egin da indar handia, baina zorizko aldaketan onorio diren minbizien kasuan detekzio goiztiarra izan daiteke aukera bakarra; detekzio goiztiarra eta ebakuntzaz kentzea, behar den kasue-



Faktore bakoitzari dagokion ehunekoa, minbiziaren arabera. ARG.: C. TOMASETTI ET AL./SCIENCE 2017.

tan. Horrek ez du esan nahi prebentzioa alde batera utzi behar denik, noski; zorizko aldaketak mutazioen ehuneko txiki bat besterik ez diren minbizietan prebentzioak jarraituko du izaten estrategiari eraginkorra. Haietan, inguru-

mena eta bizi-ohiturak zaintzea oinarritzkoa izango da. Kasuan kasu, beraz, estrategia bat edo beste lehenetsi beharko da. Science aldizkariak argitaratu du [iherketa](#).

## etorkizuna.eus

±18 Presta Ezazu Zure Etorkizuna aldizkariaren web orrialdea



Hezkuntza  
Gazteria  
Giza Eskubideak  
Eta askoz gehiago...